



**KULTUR POLITIKEI BURUZKO
NAZIOARTEKO I. BILTZARRA**

2005eko azaroaren 14a eta 15a
Euskalduna Jauregia, Bilbao

**I CONFERENCIA INTERNACIONAL
SOBRE POLÍTICAS CULTURALES**

14 y 15 de noviembre, 2005
Palacio Euskalduna, Bilbao

“Kultura Politikak EAE-an”

Gurutz Larrañaga

Eusko Jaurlaritzako Kultura, Gazteria eta Kirolak sailburuordea

Kultura Politikak EAE-an.

1-Indarguneak

2-Indartu beharreko lerroak

3-Datozen bi urtetako proposamen estrategikoak

1 Egungo kultur politiken indarguneak

Gaia agortzeko asmorik gabe, bost aipatuko ditut.

1.1 Kultur sorkuntza eta produkzioa, sustatzeko dirulaguntzei egonkortasuna eman diegu, baita kultur erakundeentzako laguntzei ere.

Agian ez dira nahikoak, bai ordea, ziurrak.

Egonkortasun hau esparru desberdinetan ematen da:

*** Arte plastikoetan. “Gure Artea”sariak artista berrien sorleku eta proposamen artistiko berrien erraztaile, bideratzaile.**

*** Euskarazko liburuen edizioan**

*** Antzerkian. Muntaia- proiektuei, feriei laguntzak. Antzokien sarea.**

*** Ikusentzunezkoan. Sorkuntza, produkzioa eta zabalpenaren sustapena feria, merkatu eta jaialdien bidez burutuz. Azpimarratzekoak dira, alor honetan:**

1 Kimuak programa. Laburmetraien sustapen eta zabalpenerako programa.

2 NINIAK programa. Ikusentzunezkoaren produkzioa nazioartean sustatzeko programa.

3 Zinema-jaialdi eta programei laguntzak (Donostiako Zinemaldia, Zinebi, Fantasia eta beldurrezko zinemaldia, Euskal Herriko Antena Media, Euskadiko Filmategia eta abar.

1.2 Arreta berezia eskaini diogu euskarari, diskriminazio positiboan oinarritutako politikak aplikatuz.

. Euskaraz sortu eta argitaratzen denari, Euskal antzerkiari eta zinemari , euskarazko hedabideei, ematen zaizkion laguntzak garrantzizkoak dira.

. Bestalde, Euskal Musikaren kanpo sustapena “Euskadiko soinuak” programaren eskutik laguntzen da.

1.3. Ondarearen eremua sistema diferenteen bidetik arautu da, Artxiboen, Museoen eta liburutegien Sistemen bidez hain zuzen.

. Euskadik maila ona lortu du museoen alorrean; liburutegien sare zabala du eta artxibo-politikaz arduratzen den zerbitzu eraginkorra: IRARGI(Artxiboen eta Ondare Dokumentalaren Zerbitzua)

1.4 Kultur zerbitzu eta erabilerei buruz, hiru aipamen:

. Kultur ekipamenduak ugaritu egin dira eta erkidegoko herri askotara zabaldu, formatu diferenteetan: kongresuguneak, auditoriumak antzokiak, kultur etxeak, zentru zibikoa, erakustokiak, kultur aretoak....

. Interesgarriak dira prentsa eta irratiari lotutako usadioak. Difusioari dagozkion aleak (mila biztanleko 190 ale, prentsa espezializatua barne) eta prentsaren irakurketa (%50ek irakurtzen du) Datu hauek Europako herrialdeen mailan daude. Espainiako batz bestekoa bikoiztu egiten dute eta Frantziakoak baino altuagoak dira.

. Bestalde, Euskadin, bertako komunikabideak erabiltzeko joera nabaria eta berezia dago. Joera

hau oso sendoa da prentsaren kasuan eta hau bertan egina da kasu gehienetan.

1.5 Azkenik, indargune berrienak aipatuko ditut

1.5.1 Kulturaren zerbitzurako, babesgoari abantaila fiskalak eskaintzeko sistema propioa eguneratu da. Garrantzizko lorpena da.

1.5.2. Kulturaren Euskal Plana hezurmamitu, onartu eta martxan jarri da. Zer da K.E.P.?

- . Partaidetza zabaleko gogoeta kolektiboa**
- . Kulturaren sektore guztiak lantzeko ikuspegi estrategikoa.**
- . Bere garapenerako egituren planteamendua.**
- . hauen artean, azpimarratzekoa da Erakundearteko Batzordea, Kultura politiken koordinaziorako.**

1.5.3. Ikusentzunezkoaren politikaren berrikuspena. Hiru puntu aipatuko ditut:

1 Industriaren ikuspegiko estrategia finkatua da (Kultura Saila, Industria eta Ogasun Sailarekin elkarlanean)

2 **Sektorearen sustapenerako bi plataforma**
martxan jarri dira:

- **Ikusentzunezkoaren Erakundearteko Batzordea, (CIBAL).** Estudioak eta proposamenak burutzeko.
- **Ikusentzunezkoaren Klusterra.** Erakunde pribatua da eta sektoreko eragileak ditu barnean, ikusentzunezko enpresak.

3 **Ikusentzunezko produkzioaren sustape-
nerako fiantziazio-lerro berriak.** (9 milloi euro
arte)

- Interesik gabeko eta itzuli beharreko maileguak.
- Interes barruko maileguak.

Dena den, Ikusentzunezkorik garrantzizkoena EITB da bere TB bi kanalekin eta bost irrati-kanalekin.

2-Indartu beharreko lerroak

KEP-an hurbileko etorkizunean garatu beharreko lan-ildoak ezartzen dira.

2.1 Kulturaren Euskal Sistema eraikitzea, instituzioak, baliabideak eta agenteak bateratuta:

- Kulturaren Euskal Kontseilua
- Erakundeak Koordinatzeko Batzordea
- Kulturaren Euskal Behategia (ezartzeko prozesuan)
- Arteen eta Kultura Industrien Euskal Institutua (zehazteko prozesuan)

2.2 Kontserbazioa, sorkuntza, ekoizpena, komertzializazioa eta kulturaren hedapena sustatzeko politika publikoak indartzea eta berritzea

- Erakundeak koordinatzea, diru-laguntzak agintzeari dagokienez.
- Sorkuntzaren aldeko apustua egitea. Giza kapitala nabarmentzea. Hezkuntza-sistemako kultura-prestakuntzari dagozkion curriculum kultural eta artistikoak berriz aztertzea, Hezkuntza Sailaren laguntzarekin.

2.3 Kultura-ondarea eta dagokion balio-katea dinamizatzea.

Honako jarduera hauen bidez:

- Legeak garatuta (Museoak/Liburutegiak/Artxiboak).
- Ondarearekin lotutako azpiegiturak eraikita eta garatuta: Euskadiko Liburutegia, Euskadiko Artxibo Historikoa, Euskal Filtoteka...

2.4 Ikusmen Arteak eta Arte Eszenikoak eta dagokien balio-katea dinamizatzea, liburuak, musika eta diskoak egiteko diru-laguntzetan sakonduta; honako bi lan hauek azpimarratuz:

- lurralde bakoitzean koreografia-zentroa ezartzeko aukera aztertzea, aldundi eta udaletxeen laguntzarekin, esparru honetan dauden defizitak arintzeko asmoz.
- Balizko Arte Eszenikoen Goi Mailako Eskolaren bideragarritasuna aztertzea.

2.5 Kultura Industriak eta dagokien balio-katea dinamizatzea

- Ikus-entzunezkoak sustatzeko politikarekin jarraitzea: Sorkuntza bultzatzea/Ekoizpenerako laguntzak ematea/finantziazio-lerro abantailatsuak sortzea/Ikus-entzunezkoen Cluster-a garatzea.

2.6 Kulturan euskararen presentzia bultzatzea

- * Kultura Saileko Kultura Sailburuordetzak honako lan-ildo hauek ezarri ditu:

Orokorrak

- Ezagutzatik erabilerara pasatzea bultzatzea, Administrazio eta sektoreen artean adostutako ekimenekin.
- Adostasun politiko eta soziala indartzea eta hedatzea.
- Euskararen Aholku Batzordearen lana bultzatzea.
- Euskararen esparru osoan (Nafarroa eta Iparralde barne) aritzen diren Instituzioen eta Administrazio Publikoen arteko elkarlana sustatzea.
- Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN)

Euskarazko kulturaren garapena bultzatzea du helburu. Jarduteko zehar-lerro honek kultura-programa guztiak ukitzen ditu: Argitaletxeen sektorea, liburutegien eta artxiboen sistemak, zinemaren eta musikaren arloak...

2.7 Kulturaren garapena sustatzea, kohesio sozialaren ardatza izan dadin, Ezagutzaren Gizartearen esparruan, eta, halaber, komunikazioen sistema garatua bultzatzea. Hemen honako hau azpimarratuko nuke:

a) Alde batetik, Komunikabideen arloari dagokionez:

- Ikus-entzunezkoen Euskal Legea egingo da, eta bertan, Ikus-entzunezkoekiko independentea izango den Batzordea ezarriko da.

- Aste honetan, LTD lokalari buruzko dekretuaren zirriborroa aterako da.

- 2006an, baldintza berrien arabera egokitutako beste Kontratu/Programa bat sinatu behar da, Gobernuaren eta EITB-ren artean.

- Eta, espektor irrati-elektrikoaren esleipen berriak badaude, FM-en beste deialdi bat egingo da.

b) Bestetik, 2004-2007 Azpiegituren Plana dago. Plan horretan, besteak beste, honako alderdi hauek ezartzen dira:

- Donostiako Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa (CICC), Gobernuaren, Gipuzkoako Diputazioaren eta Udaletxearen laguntzarekin.

- Ekaingo Koben Erreplika (Ekain-berri)

- Gasteizko Biltzar eta Musika Jauregia
- Gasteizko Andra Mariaren Katedralaren ereduako zaharberritzea
- Bilboko Artxibo Nazionala

2.8 Teknologia adierazteko era berriak berreskuratzea eta egokituta erabiltzea sustatzea, sorkuntza eta ekoizpena berriztatzeke

LTD-a ezarri eta euskarari dagokion esparrua “eus” erregistratzeko neurri egokiak hartzeaz gain, dagoeneko, edozein motatako ondareak digitalizatzeko ahaleginak egiten ari gara, erakundeak (Euskal Parlamentua, diputazioak, Eresbil, EITB, Susa, Euskaltzaindia, Euskadiko Filtoteka...) ahalegin handi eta intentsiboa egiten ari dira, eduki digitalizatueterako (liburutegi digitalerako, artxiboetarako, egunkarietarako eta beste hainbat ekimenetarako) sarbidea den atariarekin. Aldi berean, beste erakunde batzuk horretan espezializatzen ari dira: Ekomedia, Elhuyar, Vicomtech, Gaiarekin lotutako enpresak...

2.9 Euskal kultura nazioartean proiektatzea

Euskadi Institutua atzerrirako eta kooperazio kulturalerako enbaxada izango da, euskara eta euskal kultura atzerrian sustatzeko, hedatzeko eta proiektatzeko asmoz.

3-Datozen bi urtetako proposamen estrategikoak

Kulturaren Euskal Planaren garapenean txertatzen dira datozen bi urtetarako proiektu estrategikoak. Proiektu hauek eremu desberdinei dagozkie.

3.1 Egiturazko organoak

- Kulturaren Euskal Kontseilua bultzatzea. Bertan, administrazio publikoek eta Kulturako sektoreek hartzen dute parte. Ondo ari da lanean.

- Erakundearteko koordinaziorako Batzordea

Martzan dagoen batzordea eta ezinbestikoa Euskal Kulturaren norabideak aztertu eta bideratzeko. Bertan, Euskal Kultura Sailak, hiru Foru Aldundiek, hiriburuetako Kultura arduradunek eta EUDELEk parte hartzen dute. Bermea ematen dio K.E.P.ren garapenari, ibilbideari.

- Kulturaren Euskal Behatokia. Laster hasiko du bere ibilbidea. Oinarrizko baliapidea da Kultur politika garatzeko.

- Arte eta Kultura Industrien Euskal Institutua

Une honetan, institutu honen definizioan dihardugu. Administrazioen eta sektoreen arteko harremanen hondik

norakoa gauzatzeko giltzarria izango da, eta Kultur industria eta arte eszenikoak bultzatzeko balioko du.

- Ikusentzunezkoen Kontseilua. Kontseilu independentea. Ikusentzunezkoetako edukiak arautzen eta jarraitzen duen erakundea da.
- Kulturari dagozkion Kurrikukak hezkuntz sistemaren maila desberdinetan txertakuntza beraztertzea eta egituratzea (Hezkuntza Sailarekin batera)

3.2 Lege Garapena

- Museoen legea
- Liburutegien legea
- Agiritegien legea
- Ikusentzunezko Komunikazioaren legea
- Euskal Institutuaren legea. Euskal Kultura atzerreian sustatzeko eta zabaltzeko helburua duena

3.3 Kultur azpiegiturak

- 2004-2007 Kultur azpiegituren Euskal Plana garatzea, Plan honen aurrekontua: 46,5 milloi/2006eta 2007an: 26,2 milloi

Aipatu ditzagun nagusienak:

- Euskadiko liburutegia (Donostia)
- Euskadiko Artxibategi historikoa (Bilbo)
- Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentrua (CICC) (Donostia)
- Musika eta Kongresuen Jauregia (Gasteiz)
- Euskadiko Filmatagia (Donostia)
- Santa Mará katedralaren Bergaitzea (Gasteiz)

- Ekaingo kobazuloen Erreplika Ekain Berri (Zestoa)
- Arabako Arkeologia Museoa (Gasteiz)
- Kristobal Balenziaga Museoa (Getaria)
- Añanako Gesaltzak (Araba)
- Ipupomamua proiektua (Asteasu)
- Mintzola proiektua (Billabona)
- Itsas Museoa (Bilbo)